



TXIKITTO!

2021eko azaroa 203. zenbakia



ZINEMAGINTZAN MURGILDUTA

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK.....	11-12
IKASLEEKIN.....	4-5	LEHIAKETA.....	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA.....	15
AITXITXA-AMAMEKIN..	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
NI BAI ARTISTA	10		



Argitaratzailea
“...eta kitto!” Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Maketazioa
Ana Aizpurua

Ikus-entzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Zer egiten du kaxa batek gimnasioan?
- Kaxa fuerte bat!




- Zer esaten dio mahats berde batek more bati?
- Hartu arnasa, motel!

- Zer esaten dio jaguar batek beste bati?
- Jaguar-iu?



- Zelan esaten zaio txinatar pobre bati txineraz?
- Txinuntxentabo

- Zer egiten du zebra batek bide erdian?
- Zebrabidea



- Zer esaten dio jirafa batek zebra bati errepide ondoan?
- Aizu, zebra jauna, etzan zaitez lurrean ni errepidetik pasa ahal izateko.



Beldurrezko filma Amañako ikasleen eskutik



BIDEOA



Amaña herri ikastetxeko ikasle talde batek oso proiektu interesgarria du esku artean: beldurrezko pelikula bat sortzea. Eurek egingo dute lan guztia, hasierako ideiatik grabaketaraino, eta gogo handiarekin dabilta. Prestatu krispetak, beldurra pasatzeko ordua heldu da eta!

JOSHUA SALCEDO,
11 URTE



Gure proiektuak 'Beldurrezko filmak' du izena eta, izenak dioen bezala, beldurrezko pelikula egitea da gure asmoa. Filma oso ondo geratzea asko gustatuko litzaidake eta, batez ere, ikaskide guztiok elkarlanean gauza polit bat egitea.

JOSU HERNANDEZ,
10 URTE



Proiektua aukeratzeko orduan, ikasle bakoitzak gai bat proposatu zuen eta, gero, sortu ziren ideia guztien artean gure gustukoena aukeratu genuen: beldurrezko pelikula egitea. Gaia aukeratu ondoren, marrazki bat egin genuen eta banan banan azaldu genuen horren inguruan zer genekien, zer jakin nahiko genukeen eta zer egin nahiko genukeen.



OLATZ ALBIZU,
10 URTE

Guztion artean beldurrezko pelikula bat grabatu nahi dugu, gurasoek eta eskolako beste ikasleek guk sortutakoa ikusteko aukera eduki dezaten. Ikaskide batzuek sarrera kobratzea proposatu dute, baina oraindik lortuko diruarekin zer egingo dugun ez dugu erabaki. Jasotako dirua Gobernu Kanpoko Erakunde bati ematea da aukera bat, baina oraindik ez dakigu ziur.



IANIRE HIJAR,
10 URTE

Gaztelania ikasgaian, taldeka, beldurrezko lau ipuin idatzi ditugu, eta baita beldurrezko film baten erreseina ere, Frankensteinena hain zuzen ere. Euskara ikasgaian, ostera, beldurrezko animalien fitxa egin dugu. Eta matematiketan, azkenik, eskolako beste ikasleei inkesta egin diegu, euren pelikula-mota gustukoena eta euren beldurrak ezagutzeko.



MUNTASIR HAQUE,
10 URTE

Orain, ipuin bat aukeratzea, moldatzea eta pelikularen gidoi bihurtzea da gure asmoa. Testua idatzi ondoren, grabaketa egiten hasiko gara. Horrez gain, beldurrezko pelikulen zuzendari ospetsuenak zeintzuk diren jakin nahi dugu eta beraien biografia idaztea da gure asmoa. Gainera, matematiketan, inkestan jasotako datuak erabiliz, grafikoak egingo ditugu eskolako pasilloetan ipintzeko.



NAIA FERNANDEZ,
9 URTE

Proiektua oso polita eta erakargarria da berez, baina aukeratzekotan, pentsatzen dut grabaketa prozesua izango dela politena: mozorrotu egingo gara, istorioak kontatuko ditugu... Proiektuan aurrera egiteko eta grabaketa hasteko gogotsu nago!



J.A. MOGEL

Aurreko astean zehar J.A.Mogel ikastolako ikasleek zenbait gurasoren bisita izan zuten. Alde batetik, Igor Vega (Aiora eta Malen Vegaren aita), Txinara lanera joan dela eta bideo-deia izan dute berarekin. Handik bere lana zertan datzan eta hango herrialdeko zenbait bitxikeri kontatu zien bi alaben gelako kideei. Bestalde, 3.C mailakoek, Iker Espillak (Martxel Espillaren aita) eta Gorkak (Ikerren lankidea) egiten duten lanaren inguruko azalpenak izan zituzten. Bide batez imandun txapak egiteko aukera izan zuten beraien batera. Ea guraso gehiago animatzen diren, J.A. Mogel ikastolan poz-pozik hartuko zaituztegu!



ARRATEKO ANDRA MARI



HHko 4 eta 5 urtekoek eta LHko 1. eta 2. mailakoek Donostiako Akuariumekoen eskutik, tailerrak izan zituzten eskolako aretoan, "Nolakoak dira arrainak" eta "Boga-boga", hain zuzen ere. Mendi irteerak ere martxan hasi dira jada, eta gure ikasle batzuk parte hartu zuten Hernani inguruan egin zen txangoan. Azaroaren 15ean, Gaztañerre eguna ospatu genuen, abestu eta bertsoak bota ondoren, gaztainak jan genituen!!! 6. mailako ikasleek, etxetik bizikletak ekarri eta eskolako patioan txirridularitza saio batzuk izan dituzte. Azaroaren 25ean Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ere gogoan genuen, hainbat ekintza burutuz. Hilabetea amaitzeko, azaroaren 29an San Andres azoka izan genuen!!

URKIZU

LH 1. eta 2. mailako ikasleak Izenaduba baserrira joan ziren. Olentzero eta bere lagun mitologikoak ezagutzeko aukera izan zuten eta primeran pasa zuten natura ingurune zoragarrian. Azaroaren hasieran ezkur lanadaketarekin hasi ziren 5. mailakoak. Aurretik ezkur bilketa egin zuten Urkizu inguruko baso batean. Horrela lagundu nahi diote gure ingurumenari, aldaketa klimatikoarekin kezkatuta daudelako. Merezi izan zuen aldapan gora egin genuen ahalegina! 4. mailan egunerokotasunean jaten ditugun produktuak aztertu ditugu zenbat azukre barneratzen dugun jakiteko. Konturatu gara uste baino askoz azukre gehiago dutela!





ALDATZE

Azaroaren 9an SD Eibar-eko lehen taldeetako Anaitz Arbilla eta Nerea Gantxegi jokalariek Aldatzeko 3. mailako ikasleei "Euskararen Baloia" aurkeztu zieten Ipuruan eta ipuina kontatu zieten. Ikasleek baloia euskaraz hitz egiten denean puztu egiten dela gogoratu zuten eta Ipuruako prentsa aretoan jokalariekin euskaraz mintzatzeko konpromisoaz eta hainbat konturi buruz hitz egin zuten. Jokalariek bi kamiseta sinatuta eta futbol-partidak ikusteko sarrera batzuk banatu zizkieten.



AMAÑA

Amañako LH-ko ikasle guztiak ikasturte osoan zehar aurrera eramango den "ENIGMA LEHIAKETAN" parte hartzen ari dira. Lehiaketa hau Euskara Batzordeak antolatu du eta enigma bati soluzioa ematean datza. Erantzuna gelaka emango da eta asmatzen dutenei puntuak emango zaizkie. Enigmak 3 astetik behin aldatuko dira. Lehiaketa honen helburu nagusia gelan euskaraz aritzeko aparteko momentuak edukitzea da eta buruak astintzea, noski! Lehenengo enigmaren soluzioa eskola osoak asmatu du eta gela guztiek puntuak irabazi dituzte. Ikusiko dugu zer gertatzen den hurrengoekin!!!

SAN ANDRES

Hemen San Andreseko baratza. Aurten ere, 2. mailako ikasleak eskolako ortuaz arduratuko dira. Lehendabizi uda aurretik landatutako barazkiak bildu genituen, gero bankalak prestatu ditugu eta azkenik udazkeneko barazki berriak sartu ditugu: letxugak, porruak, idarrak...Bestalde, azaroaren 15ean, Gaztañerre eguna, primeran pasatu genuen gaztainak erretzen eta dastatzen! Uummm... Zein gozoak zeuden!!



LA SALLE

"Amona Inaxiaren egunerokoa" proiektuaren barruan, Jesus Gutierrez historialariarekin egon ziren La Salle Isasiko ikasleak Eibarko toki historikoak eta kontakizunak ezagutzen. Proiektu berean, ikasle batzuen aitona-amonak bisitan etorri ziren bere bizipenak kontatzeko. Bestalde, 1go mailakoak Coliseora joan ziren "Nur eta herensugearen tenplua" filma ikustera. Poz pozik bueltatu ziren eskolara nahiz eta jausitako txaparradarekin blai heldu. Amaitzeko, 3. mailakoak Ipuruara joan ziren bertako instalakuntzak ezagutzera eta gelan prestatutako galderak egin zizkieten Gaizka Garitano entrenatzaileari eta Ane Perez jokalariai.



Roberto Perez eta Oier Arrizabalaga «Nire ume denboran abentura handia zen autobusez bidaiatzea!»

Oier Arrizabalaga (Eibar, 9 urte) Aldatze ikastetxeko ikasleak Roberto Perez (Soraluze, 65 urte) aitxixari egin dio elkarrizketa. Roberto Soraluzen jaio zen baina betidanik izan du lotura estua Eibarrekin. Armeria Eskolan ikasi zuen eta jubilatuta arte egin du lan Eibarren. Orain dela hiru urte bertara etorri zen bizitzera.



Zer moduz zaude, aitxixta?

Oso ondo. Zurekin beti ondo.

Aitxixta, zer egiten zenuen umetan denbora librean?

Lagunekin jolastu, anaiekin etxean egon, etxeko errekauek egin... Horrela pasatzen genuen denbora.

Nora joaten zineten oporretan?

10 urte egin arte inora ere ez. Baina Ondarruntia bat genuen eta udan bertara joaten ginen, laguntzera, eta bide batez hondartza ere aprobetxatzen genuen. Hamar urte bete arte gurasoekin mendira joaten ginen.

Kotxerik ba al zenuten?

Ez, ez. 22 urterekin karneta atera nuen eta orduan erosi nuen nire lehenengo kotxea, 850 bat. Oraindik gogoan dut matrikula.

Eta nola konpontzen zineten kotxerik gabe mugitzeko?

Autobusez eta trenez. Soraluzetik Eibarrerako bidaia oso luzea zen, ez da gaur egun moduan. Eta zer esanik ez urrutiago joaten ginenean, Logroñora, adibidez. Maletak autobusaren kanpoaldean joaten ziren, goian, eta baten bat igo edo jaisten bazen... Imajinatu, maletak gora eta behera... Abentura handia zen autobusez bidaiatzea!

Lehenengo telebista ikusi zenuenean zer sentitu zenuen?

Zur eta lur gelditu ginen denok. Soraluzeko lehenengo telebista nire tiak izan zuen; bertara joaten ginen Bonanza eta horrelakoak ikustera. Zuri-beltzean zen eta Eibarko tia Juanitak koloretako papera jartzen zuen pantailaren aurrean telebistari kolorea emateko (barreak). Bizilagun baten etxera ere joaten ginen, 20-22 bat nes-



ka-mutil koskor, arratsaldero, udan. Han egoten ginen denak lurrean eserita telebista ikusten...

Zelan moldatzen zara teknologia berriekin?

Ba ez oso ondo. Ez zaizkit asko gustatzen... Telefonoarekin ordenagailuarekin baino zertxobait hobeto.

Zein futbol taldekoa zara, aitxitxa?

Betidanik izan naiz Bartzelonakoa.

Eta zergatik?

Ba aita eta anaia Athletic-ekoak zirelako eta haiei kontra egiteagatik Bartzelonakoa egin nintzen.

Eta zergatik ez Errealekoa, adibidez?

Sasoi hartan bigarren mailan zegoen-eta...

"Tia Juanitak koloretako papera jartzen zuen pantailan zuri-beltzeko telebistari kolorea emateko"

Zein izan da zure ustez asmakizunik onena?

Internet. Eta etxeko lanetarako lagungarriena labadora.

Zelan gogoratzen dituzu eskolako urteak?

Beldurrez joaten ginen; irakasleak oso zorrotzak ziren eta esku arina zuten. Neskak eta mutilak ez geunden elkarrekin. Eta gero, klaro, neska bat ikusi eta matrailak gorritzen zitzaizkun lotsaren lotsaz!

Zertan aldatu da Eibar umea zinenetik?

Tailer kopurua zenbat jaitsi den... Lehen pegora bakoitzean tailer bat edo bi zeuden! Eta lehen dena zen oso iluna: kaleak, etxeak, arropak... Euria ere askoz gehiago egiten zuen, lanbroa ia egunero...

Eta zer berreskuratuko zenuke ume zinen sasoi-tik?

Duda barik bizilagunen arteko elkartasuna. Orain bakoitza berera doa, besteetan erreparatu gabe. Lehen bizilagunen atea zabalik zeuden, eta zerbait gertatzen zenean edo zerbaiten premia zegoenean hor geunden denok, elkarri laguntzeko prest. Gaur egun aldamenen zein bizi den ere ez dakigu barren!




Hiru dimentsiotan ikusteko bisorea



MATERIALA:

- Kalkatzeko paper zati bat
- Arkatza
- Kartoi mehe bat, beltza
- Artaziak
- Paisaien argazkiak edo marrazkiak



NOLA EGIN:

- 1.- Kalkulatu gurutze bat, marrazkian ikusten den bezala, 30 x 20 cm-ko kartoi mehe beltz batean.
- 2.- Moztu gurutzea artaziekin.
- 3.- Jarri argazkia edo marrazkia mahai batean, eta eutsi kartoi meheari irudian ikusten den moduan.
- 4.- Begiratu irudiari segundo batzuek gurutzean zehar, begiak kliskatu gabe.

Zer gertatuko da?

Harrigarria! Irudi laua 3 dimentsiotan ikusten da!

Nola liteke?

Burmuina ohituta dago irudiak 3 dimentsiotan ikusten. Gurutzearen formak argazkiaren ertzak estaltzen dituenez, zure garuna ez da konturatzen irudi laua dela eta benetako paisaia balitz bezala eta 3 dimentsio balitu bezala interpretatzen du. Ilusio optiko bat da.

JAUSTEN EZ DEN URA



Hartu edalontzi luze bat, eta bete urez goraino, doi-doi, gainez egin gabe. Edalontzia betetakoan, hartu karta bat, eta jarri edalontziaren gainean, estalkia balitz bezala. Orain, hartu edalontzia kontu handiz, eta eman buelta, buruz behera gelditu arte. Ikusiko duzu: ura ez da jausten! Presio atmosferikoa uraren pisua baino handiagoa denez, gorantz bultzatzen du karta, eta horregatik ez da ura jausten. Argi ibili, ordea! Karta mugituz gero, dena isuriko da!

TI-TA



GURUTZEGRAMA

T	P	T	V	F	O	L	I	O	S	O	S	T	E	R	O	
X	E	T	I	L	I	N	M	U	A	H	I	Z	S	O	K	
A	L	D	A	P	E	I	O	U	H	U	H	U	H	E	P	
K	C	K	L	E	O	H	T	E	A	G	O	L	O	P	E	
U	O	R	I	A	K	A	T	E	F	V	A	L	E	T	I	
R	R	A	M	O	K	A	L	I	T	X	I	M	I	N	O	
R	S	A	L	I	S	O	T	A	I	M	O	N	S	I	N	
A	P	I	S	E	L	A	K	O	M	I	T	O	U	S	O	
D	X	R	E	D	T	O	T	E	T	I	T	I	L	I	N	T
I	U	E	L	O	R	O	P	S	Z	A	B	N	M	U	O	
L	A	S	E	N	R	E	N	D	L	O	L	R	D	L	F	N
I	V	I	R	N	T	D	N	E	S	O	B	I	O	U	L	A
N	L	D	I	V	E	M	O	N	S	P	A	K	P	S	G	
T	E	E	S	N	L	O	V	K	K	I	K	U	O	I	R	
X	K	K	O	P	R	E	R	O	A	P	O	R	R	E	I	
O	O	L	V	L	E	N	I	E	I	E	N	L	O	R	E	B
A	I	R	B	E	L	C	N	A	L	I	V	P	I	K	O	
N	P	E	L	K	O	H	M	A	R	R	A	Z	O	A	S	
L	I	K	E	L	E	T	O	V	E	S	C	A	V	S	E	
B	L	E	P	A	N	T	E	A	L	O	F	O	L	I	H	


ELEFANTEA
TWAKURRA
KATUA
Doedoka

TXIMINO
LEHOIA
TIGREA
MARRASOA

SUDOKUA

6				7	5			
5		8	6	4		7	9	1
1	9	4			3	2	6	8
	4		7			8	3	
3		7			4	6		9
4			3	7		1	4	5
					6	3		7
8		3	4	9		5	2	6
2		7	8		5		1	4



LABIRINTOA





LABIRINTOA

SIMETRIA



LETRA-ZOPA

I	H	J	A	K	B	O	A	R	Z	M
Z	K	A	I	A	B	I	T	I	B	U
T	K	U	Z	A	K	A	R	R	A	T
N	A	S	T	D	E	G	M	R	D	A
O	O	E	O	S	K	Z	U	M	B	L
R	S	N	Z	M	A	A	N	N	M	K
R	A	T	B	S	I	D	D	O	T	I
A	S	I	J	B	B	R	U	I	E	Z
K	T	J	R	N	O	H	A	R	A	R
A	I	A	H	Z	U	R	H	O	A	I
Z	G	M	E	N	O	I	A	K	E	B

- Kutadara - Zilar - ibak
- Buz: Klats - Monden - Mandak
- Zehrean ts: - imbia - i kooak



IO EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **ABENDUAK 10** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa Pello, txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK!

**Lau lagunak** 6 urtetik aurrera

Bazen behin gizon bat, asto bat zeukana. Urte askoan zehar, aberea erro-tarako zamari lana egina zen, baina, orain, zahartuta eta nekatuta, jada ez zuen lan hartarako indarrik. Hortaz, gizonak, diru pixka bat aurreztearren, jaten emateari utzi zion. Astoak, etorkizun beltza zuela ikusirik, Bremenera alde egitea erabaki zuen, han kale-musikari ibiltzeko...

**Uxio** 8 urtetik aurrera

“Kaixo, Uxio naiz. Eta zu?” Hitz horiekin gonbidatzen gaitu mutiko ilegorri eta bihurri batek bere komikira sartzera. Ia-ia eskutik eramango gaitu bere abentura txoroak eta ideia xebreak deskubritzera. Uxiok lagun bat du, Ana, eta txakurtxo bat, Rosenda; horiek izango ditu laguntzaile bere joan-etorrietan, baita irudimen mugagabeak zabaltzen dizkion parajeetarako bidaietan ere.

**Asteburua landetxean** 10 urtetik aurrera

Labegarai ikastetxeko LH4 eta 5eko ikasleak irrikaz zeuden asteburua landetxean igartzeko. Gehienak kalekumeak ziren, mendian gutxi ibilitakoak. Asteburu bakar batean, ordea, beren bizitzako abentura biziko dute kobazulo batzuen barna. Zientzia fikziozko istorio bat bizitzen ari direla irudituko zaie.

**BITXIKERIAK****Matematikak**

111.111.111 bider 111.111.111 egiten badugu, emaitza bitxia irtengo zaigu:
12.345.678.987.654.321

**Eskuinak**

Ezkerrak baino 9 urte gehiago bizi dira

Labezomorroak

Burua mozten bazaie, bederatzigarren egunean hiltzen dira, baina gosez.





Nire bizikleta!

Orain dela urtebete, Ameriketako herri txiki batean neska bat bizi zen bere gurasoekin. Neska Emma deitzen zen.

Neskatoak ile horia eta begi berdeak zituen, baxua zen eta sudur luzea zuen. Oso triste egoten zen beti, oso ixila zen eta inbidia asko izaten zuen. Bere gurasoak behartsuak ziren eta egun batzuetan ez zuten jateko ezer. Emma eskolara joaten zen, eskola amaitutakoan bere lagunak bizikletan ibiltzen ziren baina berak ez zeukanez, triste-triste, etxera joaten zen.



Emmak bizikleta gorria eskatu zien gurasoei bere klaseko guztiek zutelako, baina Emmaren gurasoek ezetz esan zioten dirurik ez zutelako. Bizikleta ez ziotela erosiko esan ziotenez, haserretuta joan zen bere logelara. Pentsatzen eta pentsatzen egon zen eta bizilagunaren bizikleta lapurtzea bururatu zitzaion. Gauean lapurtzea pentsatu zuen, momentu hartan denak lo zeudelako. Gaua iritsi zen eta Emma jaiki zen bizikleta lapurtzera joateko. Emmak bizikleta lapurtu eta etxera joan zen lotara.

Biharamunean gurasoak ohartu gabe bizikletarekin joan zen eskolara poz-oz. Iritsi zenean denak bere bizikletari begira egon ziren. Emma oso pozik sentitu zen denak bere bizikletari begira zeudelako baina damutu egin zen, eta gauean denak lo zeudenean berriro bizikleta bere lekuan utzi zuen.

Bere bizilagunak jakin zuenean zer gertatu zen, bizikleta oparitu zion, berarentzat txikia zelako eta beste bat erosi zuelako.

Handik aurrera Emma lagunekin pozik irteten zen bizikletan.

Hanan Fernandez

Aliza Tariq

ZU BAI MARGOLARI!

